

Enirio-Aralar historia laburra

ALFREDO MORAZA, Mankomunidadearen Historia liburuaren egilea



■ enirio aralarko mankomunitatea

Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Partzuergo Nagusiarekin batera, mendiak eskaintzen dituen baliabideak modu berezian aprobetxatzeko azken adibideetako dugu. Beste garai batzuetan, Gipuzkoako eta Euskal Herri osoko ia mendi guztiak inguruko herrienak ziren. Espazio horien ikuskera tradizionalaren jatorria historiaurrean egon daiteke, garai horretan izaera jentilizioa zuen gizarte antolamendua nagusitzen baitzen.

Mendi horiek inguruko biztanle eta herrien arteko topagune izan ziren, eta hainbat formula erabili zituzten ondasunak partekatzeko (mankomunitateak, mendi frankoak, partzuergoak). Egun arraroa egiten zaigu hori; izan ere, jabetza pribatua eta indibiduala ia sakratua da.

Mankomunitate hori 1409ko azaroaren 14an sortu zen, orduantxe erabaki baitzuten hainbat herrik bertako jauntxoak zen Ojer Amezketari Enirio eta Aralarko eskubideak ("*mortueros y herbajes*") 1.400 florinen truke erostea. Hamarkada bat lehenago, Gaztelako Erregeak aipatutako jauntxoari eman zizkion eskubide horiek, eskainitako zerbitzuen ordainetan; Mankomunitateko herriek, orduan, eskubide horiek aldarrikatu zituzten, oso aspalditik haienak zirela argudiatuta. Mendeetan zehar arazoak eta tirabirak izan ziren, baina azkenean salerosketa akta baten bidez amaitu ziren.

Mankomunitatea hamabost herrik osatzen dute, eta bi talde handitan edo mankomunitate txikitan antolatu ohi zen: Amezketakoa edo Bozue Nagusia (Amezketak, Abaltzisketa, Orendain, Baliarrain eta Ikaztegieta) eta Ordiziakoa edo Bozue Txikia (Ordizia, Legorreta, Itsasondo, Arama, Alzaga, Gaintza, Zaldibia, Ataun, Beasain eta Lazkao). Talde horietako bakoitzak

batzorde eta organo erabakitzaile propioak zituen, eta aldian-aldian biltzen ziren haien pribilegioak kudeatzeko.

Aprobetxamenduen partekatzea dela eta, ia etengabe liskarrak izan dira bi talde horien artean eta taldeko kideen artean, eta baita bizilagunekin ere. Liskar horien ondorioz, udaleko diru kutxak hutsik utzi zituzten auzi judizial garesti eta luzetara jo behar izan zen, sarritan abereak atzematen ziren eta, batzuetan, trabukoak tarteko, borrokak izaten ziren bertako larreetan. Liskar horiek direla eta, Mankomunitatea desegiteko eta lurrak hainbat herriren artean banatzeko zorian egon zen behin baino gehiagotan, baina ez zen halakorik gertatu. Antzeko zerbait gertatu zen XIX.

mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, Estatuak Mankomunitatea desegin nahi izan zuenean. Alabaina, defentsa sutsuari esker berriro salbatu eta gaur egun arte iraun du.

Azken urteotan egin diren azterlanei esker, egun ikus dezakegunarekin alderatuta oso bestelakoa den paisaia bat deskribatu dezakegu. Egungo larre zabaletan, baso itxiak zeuden duela bi mende inguru. Paraje horietan egun ardi ugari bazkatzen badira ere, iraganean gehienbat behi eta zerriak, eta, neurri apalago batean, ardiak ibiltzen ziren. Artzain horiek egun hogeita hamar bat kortatan biltzen dira, nahiz eta dokumentazioaren arabera, gutxienez ehun korta edo saroi dauden. Egun, tamalez, saroi horien horma batzuen hondarrak baino ez dira geratzen. Basoa artzainek eta auzotarrek ustiatu ohi zuten; bertatik ateratzen zuten txabolarako behar zuten erregaia edo etxeak egiteko edo industriak garatzeko behar zuten materiala. XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, ikazkinak agertzearekin batera, gauzak goitik behera aldatu ziren eta paisaia erabat antropizatu eta basoko masa horrek nabarmen egin zuen atzera. Halaber, paisaia horren eraldaketan erabakigarria izan zen baliabide mineralen ustiapena. Jarduera horren lehen aztarnak jada historiaurrekoak dira, baina XVIII. mendetik aurrera hartu zuen kutsu indus-



ARALARKO LARREAK IREKITZEKO FESTA

2009ko Maiatzak 1, LARRAITZEN



10:00etan Salmenta-postuen irekiera eta "Arkupe Dantza Taldea" eta Triltilariak festaren gunean
11:00etan Mezu Nagusia Larraitzeko Ermitan
11:30etan "Artzain-izaburen erakustaldia", Artxate taldearen eskutik
12:00etan Enirio-Aralarko Mankomunitatearen VI. Menduurrenari hasiera ofiziala emateko Larraitzen ezarritako harrespila inauguratuko da
Jarraitzen Aralarko larreak irekitzeko etxaluegoa eta jaialdia:
Bertsolariak: Mikel Mendizabal eta Bisente Gorostidi
Harri-jasotzaileak: Mielso Saralegi Antziko harriarekin
Jaialdia Musika emanaldia Joan Mari Beltranen eskutik
17:00etan Erromeria: Larraitzeko triltila

Aberreen erakuslata: Astoiak, behiak, behorrak, ardiak, eta abar... Etxalengintza saiok, artile, saski, harri-lanbete, ohiko tresnen erakuslata...
Bertako produktuen salmenta: ardi eta ahuntz-gazta, taloa, sagardoa, osin produktua, baserriko ogia... eta Aralarko Mapa, liburu eta liburuak.

triala Arritzaga aldean, non 300 pertsonatik gorako herrixka bat sortu zen. Beste aprobetxamendu batzuek eragin txikiagoa izan zuten -horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiago izan zutenik- hala nola, elurraren edo oihanpeko produktuen (ote zuria, garoa, hosto lehorrak,...) ustiapenak.

Laburbilduz, Mankomunitatearen 600. urteurrenaren ospakizuna funtsezkoa da lurraldearen ustiapen sistema tradizionala ulertzeko; gizabanakoak eta taldeak harreman zuzenagoa zuen jarduerak garatzen zituen natura ingurunearekin eta bertan bilatzen zituen bizirauteko behar zituen baliabideak.

UDAZKEN OPAROA ENIRIO-ARALARREN

Urteurrena ospatzeko, Enirio-Aralarko mankomunitateak, Gipuzkoako Foru aldundiarekin eta Aralar Parke Naturalarekin elkarlanean 2009rako egitaraua prestatu du. Maiatzaren 1ean Larraitzen izaten den Aralarko larrearen irekieraren festarekin eman zen lehenengo pausua eta datozen hilabeteetan gauzatuko dira gainontzeko ekintzak.

Hala, abuztuaren 9an Igaratzako festarekin bat egingo du 600. urteurrenak; irailean mankomunitateko 15 herrien arteko adiskidetasun ekitaldia izango da, non arboladiaren gaineko loteen eskubideen

inguruan historian zehar izandako desadostasunak akordio baten bidez itxiko dira; iraila edo urrian mendi martxa egingo da; iraila erditik azaro erdira arte, herri guztietara iritsiko den erakusketa antolatuko da; urrian mankomunitatearen historia azaltzen duen liburua eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendutako unitatea didaktikoa aurkeztuko dira eta, tartean, dokumental labur bat ere egingo da. Amaitzeko, azaroaren 14an -mankomunitatea ofizialki sortu zeneko eguna- Amezketako San Martin auzoan urteari amaiera emango dion ekitaldia izango da. Larraitzen maiatzaren 1ean egin zen bezala, San Martinen ere kokatuko den eskultura inauguratuko da.